

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ABALTZISKETAKO UDALA

Landaketak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa behin betirako onartzea.

Udalbatzak 2021eko azaroaren 11ean, landaketak arautzen dituen ordenantzari aldaketa batzuek onartzea erabaki zen eta horrela argitara eman zen 2022ko martxoaren 1eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Jendaurreko epea iragan eta inolako alegazio edo erreklamaziorik ez da tarteratu, eta ondorioz, onartutako ordenantza aldaketa, behin betirako onartuta ematen da.

Landaketak arautzen dituen ordenantzaren aldaketak, ondorenen jasotzen diren bezala geratzen dira:

Lehena. Jabe desberdinen finkekin muga egiten duten baso landaketak, jabeen artean adostasunik ez badago behintzat eta toki horretan ordenantza edo usadiorik ez badago, muga aman-komunetik gutxienezko distantzia hauetara egin beharko dira:

- * Baso landaketen artean: mugatik 2 metro distantzia.
- * Nekazal alorrekin, belardiekin edo fruta landaketeekin muga eginez:
 - 6 m mugatik eukaliptu motako espeziarentzat.
 - 4 m mugatik gainerako espezie adartsuentzat.
 - 2 m mugatik konifera eta erretxintsu espeziarentzat.
- * Landa etxebizitzarekin, 50 metrotara eukaliptu edo konifera bada.
- * Ormigoakin edo asfaltoarekin dauden bideetatik 2 metro mugatik eta bestelako bideen kasuan, 1,5 metro mugatik.
- * Herri bideekin muga egiten duten zuhaitzen adarrak bidera irtetzen badira, mozteko ardura jabeak izango du. Jabeak ardura hartu ezean, eta erabiltzaileek kalte jasan aurretik udalak moztuko du eta jabeari bere kostua egotziko dio. Eta hirugarren batik kaltea sortuko balio, kaltearen ordaina, jabearen gain izango da.

Abaltzisketa, 2022ko uztailaren 7a.—Ion Zubizarreta, alkatea. (4645)

AYUNTAMIENTO DE ABALTZISKETA

Aprobación definitiva de la ordenanza reguladora de plantaciones forestales.

En sesión plenaria de 11 de noviembre de 2021, se aprobó inicialmente la modificación de la ordenanza reguladora de plantaciones forestales y se publicó en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 1 de marzo de 2022.

Habiendo transcurrido el periodo de exposición pública sin haberse presentado ninguna alegación o reclamación, la ordenanza modificada queda definitivamente aprobada.

La modificación de la ordenanza, queda tal y como se redacta a continuación:

Primero. Las plantaciones colindantes con fincas de distintos propietarios, en caso de que no haya acuerdo entre los propietarios y no haya ninguna costumbre del lugar, las distancias mínimas a respetar desde los puntos de linde común, será:

- * Distancia entre plantaciones forestales: 2 metros desde el linde.
- * Limitando con terrenos agrícolas, herbazales o plantaciones de frutales:
 - 6 m para especies de tipo eucaliptus.
 - 4 m para las restantes especies frondosas.
 - 2 m para especies resinosas y coníferas.
- * Limitando con viviendas rurales o construcciones para uso agrícola: si son eucaliptus o coníferas, 50 m.
- * Distancia entre caminos que están hormigonados o asfaltados 2 metros desde el linde y en los demás casos de caminos 1,5 metros desde el linde.
- * Las ramas que salgan a la vía pública tendrán que ser cortadas por el propietario del árbol. En caso de que no lo hagan el ayuntamiento se encargará de cortar las ramas y su coste deberá ser asumido por la propiedad. En caso de que se existan daños y perjuicios por dichas ramas que salen a la vía pública, el daño ocasionado será abonado por la propiedad del árbol.

Abaltzisketa, a 7 de julio de 2022.—El alcalde, Ion Zubizarreta. (4645)